

Argal



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Zer guapa zauden" esaten dizute el-karrizketa hasterako. Berotasun gorri batek hartzen dizkizu masailak eta eten txiki batek ematen dio bide jarraian datorren galdera erretorikoari: "Argaldu egin zara, ezta?". Buruarekin baietz zuk.

Kalean norbaitekin gurutzatzean, lan-bileretan, jendaurreko emanaldien ostean... Aspaldiko lagunen, azkenaldiko ezagunen, gertu-gertukoenen nahiz urrutikoagoen ahotik belarriratu zaizkizu bi esaldiok azkenaldian, lausengu lurrin nabarmenez. Dagoeneko ez zaizu hain nekeza lerro artean adierazi nahi dizuten hori irakurtzea.

Lehenago ez zizun inork "lodiago" zeundenik esaten. Orain, aldiz, bi begi handi sumatzen dituzu musukoaren atzetik zu zoriundu nahian. Zorionak, begi horien arabera behintzat, beti nahi izan duzuna lortu duzulako azkenean. Zorionak, orain pixka bat gertuago zaudelako edertasun kanon inposatu bezain iritsezinetatik. Zorionak, balizko sakrifizioak merezi izan duelako.

Inork ez daki benetan zure bizitzako unerik zailena pasatzen ari zarelako argaldu ote zaren. Inori ez zaio axola. Zorionak, "zer guapa zauden"

"Dieta zorrotzen bat jarraituko zuen ziur". "Ahoa itxiko zuen derrigor"... Inork ez daki benetan zure bizitzako unerik zailena pasatzen ari zarelako argaldu ote zaren, azken hilabeteetan baskularekiko eta, ondorioz, janariarekiko harremana zaildu zaizulako edo urdailean sortu zaizun ultzerak gosea lapurtzen dizulako. Inori ez zaio axola. Zorionak, "zer guapa zauden".

Eta zer diren gauzak. Barruraino erori zara aspalditik lokalizatuta zenuen tranpa horretan. Eta zer diren gauzak.

Bertan harrapatuta zaude orain. Sekula baino denbora gehiago igaro duzu segundo gutxi barru aho-sabaian urtuko zaizun txokolate-ontza beltzari begira.

Zuk ere noizbait norbaiti esandakoak datozkizu orain bumeranaren moduan bueltan eta, entzutearen entzuteaz, zu ere hobeto sentitzen hasia zara zeure gorputzean. Garai bateko argazkiei beha, haragitsuago sumatzen dituzu zure masail-hezurak, aldakak, besatzeak, ipurdia... Jada ez duzu noizbait argaltzen zinenerako gordetako arropa armairuaren hondoan pilatu eta bigarren eskuko dendaren batera eraman beharrik izango. Orain primeran geratzen zaizkizu ahizpa argalagoak maileguan emandako galtza bakero estuak. Lehen gustatu arren jartzera ausartzen ez zinen jantzi batzuk gustura daramatzazu soinean orain. Oraingo.

Behin argaltzen hasita, argalxeago egon nahi izateko arriskua daukazu orain. Argalago. Eta argalago. Eta argalago. Beti argalago.

Eta orduan, akaso, argalegi zaudela esango dizu kutxazainerako ilaran topatuko duzun norbaitek. ●

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

ogiaren egia

alparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074